

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Enrike Ardanza Odriozola

*Abadiño,
Bizkaia
(1928-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Mendiola auzoko
Mendiolagarai baserriko
semea. Aita zuen bertakoa
eta ama Durangoko [San
Fausto](#)koa. Gerra aurreko eta
osteko Mendiolako eskolak
ezagutu eta gero, 15 urte gaz
Durangoko lantegi batean
hasi zen beharrean. Gerra
Zibilean auzoa utzi zuten
hilabete batzuetarako eta
herri aldera joan ziren,
senitarteko batzuen etxera.
Minazuloetan ezkutatzen
ziren bitartean, aita, anaiak
eta osaba Sopuertaraino joan
ziren ebakuatuta. Mendiolan
bizi izandako 28 urteetan
denetarik egin eta ezagutu
zuen bertan, elkarrizketan
kontatu zigun moduan: gari-
eta arto-lanak, errotak,
karobiak, txondorrak,
elurzuloak, San Juan eta San
Kristobal ospakizunak eta
bestelako erromeriak,
bedeinkazioak eta erlijioaren
indarra, baserriko eta basoko
beharrak, usadio zaharrak...

Zintak

ABD-005

- **Proiektua:** Abadiñoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-11-07
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxazarra, Ainhoa

ABD-006

- **Proiektua:** Abadiñoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-11-07
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ABD-007

- **Proiektua:** Abadiñoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-11-07

- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Familia handiak

- **Erref:** ABD-005/002
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:01:52. **Bukatu:** 00:03:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxe bete jende bizi ziren lehen: aitita-amamak, familiako neska-zahar bat, gurasoak eta sei seme-alaba. Bera izan da gazteena.

2. Mendiakoak auzoko eskolan

- **Erref:** ABD-005/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:03:41. **Bukatu:** 00:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Mendiakoak auzoko eskolan ibiltzen ziren orduan. Bost urterekin hasi eta hamalau urtera arte egon zen eskolan Enrike. Geroago hasi ziren inguruko gazteak Durangoko Maristetara joaten, bere sasoian oraindik ez.</p>

3. Bizikletaz fabrikara

- **Erref:** ABD-005/004
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:04:41. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Hamabost urterekin hasi zen fabrian, Durangon, beharrean. Bizikletaz joaten zen bertara, baina orduan oraindik ere ez zegoen bizikleta askorik.

4. Pilotan eskolako hormaren kontra

- **Erref:** ABD-005/005
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan neskak eta mutilak banatuta egoten ziren. Maistra eduki izan dute beti. Eskola ederra zen, baina ez zeukan frontoirik eta eskolako hormaren kontra egiten zuten pilotan.</p>

5. Eskolako atsedenaldiak

- **Erref:** ABD-005/006
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:09:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>"Txirinkillan" jolasten zuten eskolako atsedenal dian. Hala ere, neguan basora joan behar izaten zuten egur bila, maistrak zeukan estufan sua egiteko.</p>

6. Eskolan matematikak eta geografia ikasten

- **Erref:** ABD-005/007
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:09:17. **Bukatu:** 00:10:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Eskolan matematikak ikasten zituzten eta baita Espainiako geografia ere. Maistrarekin oso pozik egon ziren.</p>

7. Eskola sasoian Eguen Zuri batzen

- **Erref:** ABD-005/008
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

<p>Eguen Zuri batzen zuten eskola sasoian. "Eguen zuri gordetan, asmo onegaz kantetan..." abesten zuten, mutilek mutiletara. Jatekoa batzen zuten orduan, dirurik ez.</p>

8. Eskolan, 'Cara al Sol' abesten

- **Erref:** ABD-005/009
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:12:25. **Bukatu:** 00:15:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerraostean, Cara al Sol abestu behar izaten zuten eskolan. Bikoteka jarrita egiten zuten, eskuak altxatuta, eta ondoren eskolara sartzen ziren. Gerraosteko lehenengo urteetan, Abadiñotik beste maistra batzuk etortzen zitzaizkien eskolara.</p>

9. Abadea eskolara dotrina irakasten

- **Erref:** ABD-005/010
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:15:07. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Astean behin Abadiñotik abade bat etortzen zitzaien eskolara dotrina irakasten. Hala ere, lehenengo jaunartzea prestatzeko, Abadiñora joan behar izaten zuten.</p>

10. Gerra sasoian Mendiolako ermitan meza

- **Erref:** ABD-005/011
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:18:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Gerran, sasoi batean zenbait abade hil zituzten Gipuzkoan eta beste batzuek ihes egin behar izaten zuten. Horrela, aitaren lehengusu abade bat etorri zen Mendiolara eta berak esan zuen meza Mendiolako ermitan han egon zen artean. Bestela, Abadiñora joan behar izaten zuten meza entzuten.</p>

11. Ebakuazioan ganaduak etxetik atera behar

- **Erref:** ABD-005/012
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:18:28. **Bukatu:** 00:23:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gerra sasoian, ganaduak atera zituzten etxetik aita eta seme bik. Lehenengo Zornotzara eraman zituzten eta gero Sopuertara. Sopuertan esnea saltzen zieten soldaduei, askotan urarekin nahastuta.

12. Ebakuazioan osabaren etxera, Abadiñora

- **Erref:** ABD-005/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:23:40. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Ebakuazioan, milizianoak etorri zitzaizkien etxetik ateratzen. Lehenengo Abadiñora jaitsi ziren osabaren etxera, baina egunez meatze-zulo batera joan behar izaten zuten babes bila. Frontea pasatzen ari zenean, ateak itxi eta etxe barruan egon behar izan zuten.

13. Bonbardaketak ama Durangon harrapatu zuen

- **Erref:** ABD-005/014
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:27:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Durangoko bonbardaketa egunean ama egon zen bertan jeneroa saltzen. Santa Maria eliza ondoan zegoen denda batean harrapatu zuen bonbardaketak; mostradorearen azpian sartu eta onik irten ziren bertan zeuden guztiak.

14. Soldaduek etxeetan egindako hondatzeak

- **Erref:** ABD-005/015
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:27:57. **Bukatu:** 00:31:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Astiro-astiro etxera bueltatzen hasi ziren gerra pasatu eta gero. Hala ere, askok etxea hondatuta topatu zuten eta lapurretak ere ugariak ziren orduan. Intxaldeko baserrian soldaduek egindako hondatzeak kontatzen ditu pasarte honetan.

15. Gerra sasoia gogorra kanpoan zeudenen senideentzat

- **Erref:** ABD-005/016
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:31:17. **Bukatu:** 00:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Oso gogorra izan zen gerra sasoia. Ez zeukaten senideen berririk eta etxeok aurrera egin behar izan zuten ganadu barik. Anaia zaharrena ere Ebroko frontera eraman zuten hamazortzi urte zituela.

16. Saibiko batailan hildako asko

- **Erref:** ABD-005/018
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:34:19. **Bukatu:** 00:38:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Saibin egondako bataila batean soldadu asko hil zen. Urkiolarako bidean hildako gizon horiek guztiak ikusi zituzten bide bazterrean.</p>

17. Mendiola, "Madril txiki"

- **Erref:** ABD-005/019
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:38:22. **Bukatu:** 00:41:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Euren auzuneari, Mendiolari, "Madril txiki" esaten zioten, leku txikian jende asko bizi zelako. Gero, jende askok utzi zuen baserria kalera bizitzeko joateko.

18. Mendiolako tabernak

- **Erref:** ABD-005/021
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:43:34. **Bukatu:** 00:46:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Mendiolan Orondo taberna ezagutu du beti. Eurenean ere taberna egon zen sasoi batean, bera jaio aurretik. Pasarte honetan auzoan egon diren beste taberna batzuen gainean ere hitz egiten du.

19. Irazolan Santa Eufemia ospatzen da

- **Erref:** ABD-005/022
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:46:39. **Bukatu:** 00:47:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Irazolako ermita Santa Eufemia da eta hantxe bertan ospatzen da jaia irailaren hamaseian, Santa Eufemia egunean.</p>

20. Gari-beharrak

- **Erref:** ABD-005/024
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:51:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garia igitaiarekin mozten zuten eta eskutadak prestatzen zituzten. Sikatzen utzi ondoren, metak egiten zituzten eta eguna heltzen zenean jo egiten zuten. Gero, makinak agertu ziren eta eurek egiten zuten beharra.

21. Garia eta artoa errotara

- **Erref:** ABD-005/025
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:51:50. **Bukatu:** 00:55:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Garia errotara eramaten zuten eta handik irina ekartzen zuten ogia egin ahal izateko. Artoa Atxarteko errotara eramaten zuten, baina garia Abadiñora edo Mañarira eraman behar izaten zuten.

22. Ogia eta artoa

- **Erref:** ABD-005/026
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:55:54. **Bukatu:** 00:56:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Gari-irinarekin ogia egiten zuten eta arto-irinarekin artoa, ogi gorrixka moduko bat. Irina erabili aurretik galbahetik pasatzen zuten, oreka egin eta ondoren labera.

23. Morokila, taloa eta ahia

- **Erref:** ABD-005/027
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Morokila eta taloa arto-irinarekin egiten zuten eta ahia gari-irinarekin. Jateko hauek zelan egiten zituzten azaltzen du du pasarte honetan.

24. Garia ereiten

- **Erref:** ABD-005/028
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:58:10. **Bukatu:** 01:02:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Garia ereiteko lurrari buelta eman behar zaio goldearekin. Azaroan ereiten zen gari garaua. Sasoi batean, batzen zutenaren zati bat entregatu behar izaten zuten udaletxean.

25. Komentuetakoak borondatea batzen etxerik etxe

- **Erref:** ABD-005/029
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:02:03. **Bukatu:** 01:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Komentuetakoak etxerik etxe ibiltzen ziren zaldiz. Jatekoa eskatzen zuten, borondatea.

26. San Juan

- **Erref:** ABD-005/030
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:03:06. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

San Juan egunean, sahatsez egindako gurutzeak bedeinkatzen zituzten elizan. Gero soro bakoitzean gurutze bana sartzen zuten. Bezperan, hiru belar mota erretzen zuten San Juan sua egiteko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com